BALMASEDAKO UDALEKU IREKIEN ZERBITZUA EUSKARAZ ANTOLATU, KUDEATU ETA EGITEKO KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUA.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da, Balmasedako udalerrian, hezkidetzan oinarritutako udaleku irekiak euskaraz antolatu, kudeatu eta egiteko beharrezkoak diren zerbitzuen esleipena egitea. Udaleku horien helburua zera da, haurren aisialdiaren eremuan euskararen erabilera bultzatzea, eta horrekin batera umeen arteko elkarbizitza eta parte-hartze ohiturak sustatzea eta jolaserako hizkuntza ohiturak ikastea.

Zerbitzu guztiak plegu honetan ezarritakoaren arabera eta Udal Zerbitzuen arduradunen jarraibideak betez eta haiekin koordinatuta beteko dira.

2.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA ETA BETEBEHARRAK

Zerbitzu hau ondorengo irizpideen arabera definitzen da:

- Aisialdi eskaintza hezitzaile bat sortzea.
- Jasotzaileen parte hartzea sustatu eta bermatuko duen prozesuak aurrera eramatea.
- Jasotzaileen beharrizanak identifikatu eta horren araberako programa zehaztea.
- Euskararen erabilera bultzatzea.
- Hezkidetza bultzatzea.
- Aukera berdintasuna sustatzea

Ondorioz, hurrengo funtzioak bete beharko ditu:

- Haurren aisialdiko eskaintza euskalduna bermatzea
- Mota ezberdineko jolasen eskaintza zabala eskaini.
- Haurren garapen psikomotore, emozional eta kognitiboak sustatzeko espazioaren antolaketa egokia egitea.
- Haurrekin balioetan oinarritutako dinamizazio saio ezberdinak gauzatu beharko dira.
- Haurren familiekin harreman zuzena izatea.
- Haurren nahien eta egoeraren informazio eguneratua izatea.
- Udalekuko lokalaren irekiera eta itxiera lokalaren txukuntasuna bermatuz.

Udalekua hasi aurretik Euskara Zerbitzuarekin adostutako datan partaideen familiekin bilera izango du esleipendunak, beharrezko informazioa zabaldu eta partaideen zalantzak argitzeko. Partaideei helarazten zaien informazio idatzi guztia elebietan egongo da.

Familiekin harremanetan izateko eta informazioa emateko telefono zenbakia izango du hezitzaile taldearen zuzendari-arduradunak. Halaber, udalekuen gaineko blog edo web orria osatuko du esleipendunak, partaideek egunero egiten dutena azaltzeko, eta udalekuaren amaierarako argazki eta bideoekin bilduma osatu beharko du, partaide bakoitzari euskarri elektroniko bidez helarazteko.

Onuradunak eta datak:

Balmasedan erroldatutako 5 eta 12 urte bitarteko haurrak, 2009tik 2016ra bitartean jaiotakoak.

2022ko Udaleku irekiak bi txandatan egingo dira. Lehenengo txanda 2022ko uztailaren 5etik 15era, eta bigarren txanda uztailaren 18tik 29ra gauzatuko dira eta haurrentzako egutegia 10:00-14:30 izango da eta honez gain, udalekuetako hezitzaileek, egunero, gutxienez ordu erdi bat eskainiko diete programa prestatzeko eta lantzeko beharrizanei.

Parte hartuko duen haur kopurua gehienez 160 izango da.

Bestelako arrazoiak direla eta, zerbitzua antolatzen duen enpresari aldez aurretik eta garaiz abisatuz gero, udalak ordutegi hauek guztiak aldatu ahal izango ditu, unean uneko beharren arabera.

Giza baliabideak:

Enpresa, elkarte edo entitate adjudikaziodunak egiaztatu beharko du proiektuarekin lotutako pertsonalak (umeekin harremana izango duten hezitzaileek) ondorengo baldintzak behintzat betetzen dituztela:

1. 18 urte beteta izatea
2. DBH tituluaren jabe izatea
3. Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritza Nagusiak emandako Haur eta Gazte Aisialdiko begirale agiria edo ikasketa baliokideak.
4. EGA edo C1 mailako euskara agiria. Berau izan ezean, euskara teknikariak egingo die elkarrizketa.
5. Antzeko lanetan gutxienez urte beteko lan eskarmentua.
6. Zuzendaria Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritza Nagusiak emandako Haur eta Gazte Astialdiko Zuzendari tituluaren jabe izango da. Urte beteko esperientzia egiaztatu beharko du, gutxienez. EGA titulurik ez baldin badu, Udaleko euskara teknikariak egingo dio elkarrizketa.

Esleipendunak zerbitzu osoa eskaini ahal izateko behar den langile taldea eduki beharko du plantilan. Aplikatuko den ratioa ondorengoa da, 10 ume begiraleko. Halaber, enpresa adjudikaziodunak begirale berezi bat atxikiko dio zerbitzuaren prestazioari diskapazitateren bat edota beharrizan bereziren bat edota urritasun fisiko, psikiko edota zentzumenezkoren bat duten umeen zainketarako. Balmasedako Udalak ez du inolako lan kontraturik, ez lan erantzukizunik, langile horiekin guztiekin.

Eremu bakoitzean garatu behar diren harreman guztiek kasuz kasu aplikatu beharreko lege araudia bete beharko dute. (Gizarte Segurantza, Lan arriskuen prebentzioa eta abar)

Udalekuetako hezitzaileen kontratazioak gutxienez Bizkaiko Gizarteko esku hartzeko lan hitzarmena beteko du.

3.- PROIEKTUAREN ETA JARDUEREN EZAUGARRIAK

Egitarauak Balmasedako baliabideak (igerilekuak, parkeak, mendiak, naturguneak,museoak,…) ezagutarazi eta erabiliko ditu.

Proiektua elebietan edo euskaraz behintzat erredaktatuko da eta alderdi hauek jaso beharko ditu, gutxienez, jardueren proposamenak:

a. Egitarauaren antolaketa eta programazioa. Programazio egokia, anitza eta edozein egoeratan alternatibak planteatzen dituena. Adinaren araberako antolaketa
b. Umeen aisialdian euskararen erabilera sustatzeko metodologiak, Euskal Herriko gizarte eta kulturan oinarrituta.
c. Planteamendu hezitzaileak: ez sexista, parte hartzailea, elkartasunezkoa, sormenaren bultzatzailea eta ludikoa.
d. Material egokia eta erakargarria erabiltzea.
e. Elkartearen, enpresaren edo entitatearen eskarmentua antzeko zerbitzuetan
f. Aurrekontua

4.- ZERBITZUAREN KONTROL ETA JARRAIPENA

Enpresa esleipendunak Udaleko Euskara Zerbitzuarekin harreman zuzena izateko koordinatzailea izendatuko du eta udalekuan gertatzen den edozein gorabeheraren berri eman. Koordinatzaile honek udalekuko saio bakoitzera bertaratu ez diren umeen berri emango dio Euskara Zerbitzuari hurrengo lanegunean asko jota. Horrez gain, Udal arduradunek behar bezalako jarraipena egin ahal izateko zerbitzuaren erabiltzaileentzat proposatutako helburuak bete diren neurtzeko arduradunekin eta esleipendun enpresarekin bilerak egin ahal izango ditu.

Era berean, Udalak ondorengo eskumenak izango ditu:

- Zerbitzuaren kudeaketa zuzendu, gainbegiratu eta kontrolatu: bere kalitatea ebaluatu
- Zerbitzuen funtzionamendua, aldaketak, ordutegiak eta bestelakok arautu.
- Zerbitzuaren esleipendunek proposatutako dinamizazio ekintzetarako programazioa ikertu eta gainbegiratu eta izaera tekniko, inguruabar edo jendearen interesekoa delako balizko aldaketaz proposatu.

Zerbitzu hauekin harreman zuzena duten ekintzak gainbegiratzeko ahalmena izango dute udaleko arduradunek, esleipendunak bere betebeharrak betetzen dituen ikusteko. Era berean, kontratuaren baldintza teknikoak eta zerbitzuaren gainontzeko inguruabarrak betetzen diren ere ikustatu ahal izango ditu.

Udalekuen amaiera baino hiru egun lehenago Euskara Zerbitzuarekin adostutako gogobetetze inkesta beteko dute udalekuko partaideen eta gurasoek edo tutoreek.

Udalekua amaitzen denetik gehienez ere hilabeteko epean urteko balorazio-txostena aurkeztu beharko da, parte hartzaileen, udalekuaren nondik norakoen, programazioaren, izandako arazoen, etab.en berri emanez.

5.IRAUPENA

Kontratua hamabi eguneko epean indarrean egongo da, zerbitzua martxan jartzen den egunetik hasita.